

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### TOKIKO GOBERNU BATZARRARI LAGUNTZEKO ORGANOA

#### Alkatearen 2024ko abenduaren 9ko dekretua, alkatearen eskumenak eskuordetzeari buruzkoa

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 124. artikulua jasotzen ditu alkateari dagozkion eginkizunak. Artikulu horren 5. apartatuak ezartzen duenez, esleitzen zaizkion eskumenak gainerako zinegotziari edo besteri eskuordetu ahal izango dizkie alkateak, dekretu bidez, adierazten diren salbuespenekin.

Lehen aipatutako 124. artikuluko a, f, g eta n letretan ezarritakoaren arabera, honako eginkizun hauek eskuordetu daitezke:

- Udalaren ordezkaria izatea.
- Udaleko organo betearazlearen erabakiak argitaratzeko agintzea, eta erabakiak bete eta betearaztea.
- Dekretuak eta jarraibideak ematea.
- Bere eskumeneko gaietan gastuak baimendu eta xedatzea.

Gauza bera jasotzen da Vitoria-Gasteizko Udalaren Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 11. eta 12. artikuluetan.

Vitoria-Gasteizko Udaleko Gobernuaren eta Administrazioaren Araudi Organikoaren 41. artikulua ezartzen duenez, zinegotzi ordezkariari dagokie beren ordezkariaren baitakoak diren administrazio-jardueraren esparruak zuzentzea, eta, bereziki, testu beraren 40. artikuluan erreserbatutako eskumenak, arloko gobernu-zinegotziari dagokion goi-mailako zuzendaritza eta ordezkariaren gorabehera.

Iñaki Gurtubai Artetxe zinegotziak karguari uko egin zion; uko egite horren berri izan zuen Udaltzatzen osoko bilkurak 2024ko azaroaren 29an egindako aparteko bilkuran, eta Izaskun Reyes Echazarreta udaleko zinegotzi berria jabetu da karguaz 2024ko abenduaren 9ko bilkuran.

Horrenbestez, hauxe xedatu dut:

Eskuordetze berezia.

Lehen xedapena. Izaskun Reyes Echazarreta zinegotziaren esku uztea Administrazioa Modernizatze Saileko Mantentze Zerbitzuaren barne zuzendaritza eta kudeaketa. Hala ere, sail horretako titular den gobernuko zinegotziak ahalmena izango du hirugarrenei eragiten dieten administrazio-egintzen bitartez ebazteko, eta zinegotziaren jarduna ikuskatzeko:

Azken xedapena. Datoren biharamunean jarriko da indarrean dekretu hau, ALHAOn eta udalaren web-orrian zein egunetan argitaratzen den gorabehera.

Xedapen indargabetzailea. Indarrrik gabe geratuko dira dekretu honetan xedatutakoaren kontra-koak diren maila bereko nahiz beheragoko dekretu eta ebazpenak oro.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko abenduaren 9an

Alkatea

MAIDER ETXEBARRIA GARCÍA